

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, BIZKAIKO EUSKO PILOTA FEDERAKUNTZAKO PRESIDENTEAK AURKEZTUTAKO IDATZIAREN GAINEKOA.

1/2016 esp.

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] (e)k, Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzaren izenean eta haren ordezkartzan, hainbat gai planteatu dizkio Batzorde honi.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean KJEB) errekurtso hau izapidera onartzea erabaki zuen. Horren berri eman zion Euskadiko Pilota Federakundeari, hamabost laneguneko epean alegazioen idatzi egokia aurkezteko eta kasua balitz, beharrezko froga-eginbideak proposatzeko.

HIRUGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurreko kideek kargua utzi zuten 2016ko otsailaren 9an, eta 2016ko maiatzaren 17an izendatu zituzten egungo kideak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138 c) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBk du errekurtso hau aztertzeke eskumena.

BIGARRENA.- [REDACTED] (e)k, Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzaren izenean eta haren ordezkartzan, KJEBk honako hauek egin ditzan eskatu du:

1.- EPFko diziplina-epaileak 2015eko otsailaren 20an emandako ebazpena mugiezina den edo ez esatea.

2.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, diziplinazko ebazpen zigortzaile hori mugiezintzat joko den data zehaztea, egoki diren zehapenak betetzeko epeak zehazteko. Beste hitz batzuetan esanda, eteteko eta desgaitzeko ezarri diren zehapenak ebazpen zigortzailea mugiezin bilakatu den datarako bete beharko lirateke eta/edo beteta egon beharko lirateke.

3.- Interesdunek Euskadiko Pilota Federakundeko Diziplina Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtoa haren isiltasunagatik ezetsi dela ulertzen bada, horrekin batera zuhurtasunez ezarritako zigorra ere kendu den esatea.

4.- Euskadiko Pilota Federakundeko Diziplina Batzordeari eskatzea BEPFko diziplina-epaileak 2015eko otsailaren 20an emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtoa ebazteko, ebazpena emateko betebeharrak betetzen ez bada ekainaren 11ko 14/1998 Legean, Euskadiko kirolari buruzkoan, adierazi diren manuetan bildutako diziplinazko arau-hauste modura hartu ahal dela ohartaraziz.

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako idatziaren eta egindako eskaeren berri eman ondoren, idatzi hori ebaluatu behar da lehenik eta behin. Horretarako, idatziaren benetako izaera aztertu behar da, 30/1992 Legearen 110. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Egindako eskaerak aztertu ondoren, Batzorde honek uste du orientatzeko eta aholkatzeko (1, 2 eta 3 eskaerak) eta errekerimendua egiteko (laugarrena) direla. Beraz, interesekoa dena 14/1998 Legeak eta 310/2005 Dekretuak Batzorde honi egoitzako eskumenetatik haratago doa.

Kontsulta Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako diziplina-epaileak 2015eko otsailaren 20an emandako ebazpen zigortzailearen harira egin dela -ebazpen horren bidez hiru epaile eta bi klub zigortu ziren- eta Batzorde honek klubetako batek aurkeztutako erreklamazio bat ebatzi duela kontuan hartuta, idatzi

honetan azaldutako gaiak aztertu behar izan ondoren, eskatzaileari Batzorde honek 3/2016 errekurtsoren inguruan hartutako erabakiaren berri ematea erabaki da.

Horren guztiaren ondorioz, KJEBk honako hau

ERABAKI DU

Sestaoko Lagun Artea Klubak Euskadiko Pilota Federakundeak 2016ko urtarrilaren 21ean emandako ebazpenaren kontra (3/2016 espedientea) aurkeztu zuen errekurtsoren inguruan Kirol Justiziako Euskal Erakundeak 2016ko ekainaren 8an hartutako erabakiaren berri ematea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 8a

José Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA